EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA
CINÉMATHÈQUE BASQUE

SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

# Klasikoak

## 2024

**Apirila–Ekaina / Abril–Junio / April–June**

www.filmoteka.eus



©CHAPLIN/UNITED ARTISTS / Album

**Bilbao**
**Donostia / San Sebastián**
**Vitoria-Gasteiz**
**Iruñea / Pamplona**
**Donibane Lohitzune / Saint-Jean-de-Luz**

bilbao museoa
Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

TABAKALERA
KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA
CENTRO INTERNACIONAL DE CULTURA CONTEMPORÁNEA

ARTIUM MUSEOA

golem

CINEMA LE SELECT SAINT-JEAN-DE-LUZ

## IKURRAK
SÍMBOLOS
SYMBOLS

| | |
|---|---|
| | **Zuzendaritza**<br>Dirección |
| | **Urtea**<br>Año |
| | **Herrialdea**<br>País |
| | **Ekoizpena**<br>Producción |
| | **Gidoia**<br>Guion |
| | **Argazkia**<br>Fotografía |
| | **Edizioa**<br>Montaje |
| | **Musika**<br>Música |
| | **Aktoreak**<br>Intérpretes |
| | **Iraupena**<br>Duración |

# **AURKIBIDEA** / ÍNDICE


| | |
|---|---|
| **AURKEZPENA** / PRESENTACIÓN | 4 |
| **KLASIKOAK** | |
| **GARAI MODERNOAK / TIEMPOS MODERNOS -Modern Times-**<br>Charles Chaplin, 1936 | 8 |
| **NOT A PRETTY PICTURE**<br>Martha Coolidge, 1976 | 9 |
| **LAS ÓRDENES -Les ordres-**<br>Michel Brault, 1974 | 10 |
| **EL DESCONOCIDO DE SHANDIGOR -L'inconnu de Shandigor-**<br>Jean-Louis Roy, 1967 | 11 |
| **ESA PAREJA FELIZ**<br>Juan A. Bardem, Luis G. Berlanga, 1951 | 12 |
| **BEGILUZEA -Peeping Tom-**<br>Michael Powell, 1960 | 13 |
| **EGUTEGIA** / CALENDARIO | 14 |
| **BURDINAZKO GURUTZEA -Cross of Iron-**<br>Sam Peckinpah, 1977 | 18 |
| **ARRISKU-KLASE GUZTIAK -Classe tous risques-**<br>Claude Sautet, 1960 | 19 |
| **CARTA DE AMOR -Koibumi-**<br>Kinuyo Tanaka, 1953 | 20 |
| **EL APARTAMENTO -The Apartment-**<br>Billy Wilder, 1960 | 21 |
| **SUR**<br>Fernando E. Solanas, 1988 | 22 |
| **ADIÓS, QUERIDA -Adieu, Chérie-**<br>Raymond Bernard, 1946 | 23 |
| **CINÉMA LE SÉLECT** | 24 |
| **INFORMAZIO BALIAGARRIA** / INFORMACIÓN PRÁCTICA | 26 |

# Kontinente berriak, espazio gehiago klasikoentzat

Formak aldatzen dira, eta aukerak zabaltzen. Lumière Institutuarekin bi denboraldi egin ondoren, Euskadiko Filmategiak urtero klasikoei eskaintzen dien zikloa aberastu egin da aurten bidaide gehiagorekin eta urtean zehar egingo diren hitzordu gehiagorekin. Eta Donostia Zinemaldiak ere parte hartuko du, gainera.

*Klasikoak* da ekitaldiaren izen berria, eta garai guztietako zinema sustatzeko eta harekiko pasioa erakusteko hiru modu bilduko ditu: dozena bat filmeko zikloa, zinemaren historiari buruzko hamaika begirada jasotzen dituena (apiriletik ekainera bitartean Euskadiko Filmategiaren programazioan); eta Donostia Zinemaldian zehar garatuko diren bi proposamen: denboraldiko zaharberritze eta berreskuratze-lan garrantzitsuen hautaketa propioa, eta atzera begirako zabal bat, aurten Italiako polizia-zinemari eskainiko zaiona, *Italia biolentoa* izenburupean. Zinemaren arloko bi erakundeen artean klasikoei helduko diete urtean zehar, hiru kontinente elkarrekin lotuta.

Lehen hitzordua, apirilean hasiko da, eta bost euskal hiriburutan egingo da. Hiru hilabetetan zehar ia mende bateko zinemaren panoramika eskainiko diguten hamabi izenburu ikusteko aukera izango dugu. Aukeraketa hori mundu osoan berriki egindako bertsio zaharberrituek osatuko dute, guztiak ere ikusle berriak irabazten jarraitzen duten film kanonikoak, inoiz ahaztu beharko ez genituzkeen bitxikeriak, zinemaren historian beste leku bat izatea merezi dutenak, eta bere garaian izan zuten estreinaldi urruneko eta, batzuetan, problematiko hartatik orain ikusiko diren distirarekin berriz ikusi ez direnak. Proiekzioetako batzuk, gainera, aurkezpenak izango dituzte zinema klasikoan adituak diren pertsonen eskutik, edota zinta bakoitzari bizitza berri bat, zabaltzeko aukera eta aintzatespena eman dieten filmoteka eta bestelako erakundeekin zerikusia duten pertsonen eskutik.

Lumière Institutuak ekarpen itzela egin zuen aurreko bi edizioetan klasikoen programazioan duen eskarmentu handiari esker, eta ziklo berri hau egiteko iturrietako bat izaten jarraituko du, beste berri batzuekin batera. Lyongo institututik *Adiós, Querida —Adieu, Chérie—* (Raymond Bernard, 1946) iritsiko da ekainean, programa ixteko. Bertsio zaharberritu horrek Danielle Darrieux burutsua du protagonista. Gerraoste betean estreinatu zen komedia pipertsuak burgesiaren hipokrisia kritikatzen du elkarrizketa zorrotzen eta eszenaratze liluragarri baten bidez.

Programazioa irekitzeko, klasikoen artean klasikoenetako bat izango dugu: Charles Chaplinen *Garai modernoak / Tiempos modernos —Modern Times—* (1936), zeinak Billy Wilderren *El apartamento —The Apartment—* (1960) lanak bezala, behin eta berriz mugarri agortezinetara itzultzeko beharra aldarrikatzen baitu, Boloniako Cinematecak eta Park Cirkusek eginiko zaharberritzeak (hurrenez hurren) aurkezteko aukera dugula baliatuta. Eta zinemaren munduko antzeko beste zutabe bat *Esa pareja feliz* (1951) da. Espainiako zinemako funtsezko bi izenen lehen lana izan zen, Juan Antonio Bardemena eta Luis García Berlangarena, hain zuzen, zeinak, asmatzeko zorian zeuden guztiaren aurrean, segurtasun harrigarri batekin egin baitzioten aurre beren debutari komedia zoragarri honetan. Zinemagile britainiar handienetako baten (Michael Powell) beste klasiko ukaezin bat, gero eta biziago dagoena, gainera, *Begiluzea —Peeping Tom—* (1960) da. Aipatzekoak dira izuaren inguruan egiten duen tratamendu sotil eta magnetikoa, eta beti bizirik dauden kolore harrigarriak.

Beste muturrean, hainbat arrazoirengatik denboran bidegabeki galdu ziren filmak daude. Haiek berreskuratzea premiazkoa da lorpenak eta balioak birplanteatzeko beharra dugun garai hauetan. Besteak beste, Martha Coolidge zinemagileaz ari gara, zeinak 1976an jada salatu baitzuen 16 urterekin festa batean jasan zuen bortxaketa, *Not a Pretty Picture* zirraragarrian. Oraindik ere aurre egiten jarraitzea eskatzen duen egia deseroso bat. Dokumental ausart eta aurreratu horrek botere eta abusu-dinamikei eta traumak hitzez adierazteko beharrari buruzko funtsezko tresna izaten jarraitzen du ia berrogeita hamar urte geroago.

60ko hamarkadan zinemagintza guztietan ugaritu ziren ausardia formalek eta sarerik gabeko esperimentuek batzuetan ulertu ez diren baina ezagutzea merezi duten bitxikeriak ekarri zituzten. Esate baterako, Serge Gainsbourg protagonista duen *El desconocido de Shandigor —L'inconnu de Shandigor—* (1967). Felipe Cabrerizok *Elefantes rosas* liburuan adierazitakoaren arabera, Gainsburg "jarraitzaile burusoil talde bat kontrolatzen duen espioi gaizto bat da" eta zinta "ezaugarri autoparodikoak eta komikien tonua duen polizia-film bat, Jean-Louis Roy-k, Suitzako *nouvelle vague* mugimenduaren aitzindarietako batek, zuri-beltzean eta kutsu espresionistekin filmatua". Bitxikeria gisa, protagonistek amesten duten Shangri-La Bartzelonako Güell parkean birsortu zuten.

Zenbait lanengatik ospe handia lortu zuten zinemagileek beren beste lan batzuk atzean gelditzen zirela ikusi behar izan zuten, ahaztuta edo, besterik gabe, ikusezin. Horixe da, hain zuzen, Claude Sautet zuzendari frantziarraren kasua, zeinari Donostia Zinemaldiak atzera begirako bat eskaini baitzion 2022an. Hala ere, haren lan garrantzitsuenetako bat, *noir* kutsu handiena duena, ezin izan genuen orduan ikusi eskubide arazoengatik. Iaz Cannes Classics etxeak zaharberritu eta berriz merkaturatu zuen *Arrisku-klase guztiak —Classe tous risques— (1960)* filmak Lino Ventura, Sandra Milo eta Jean-Paul Belmondo ditu protagonista eta, azkenik, bere indar guztia erakutsiko du zuri-beltz ahaltsu batean. Sam Peckinpah-ren lanen artean askotan ospatzen eta aldarrikatzen dira haren *western*ak —halaxe izan da aurtengo Nosferatu zikloan—, baina sarri kopia oso kaskarretan eta banaketa-arazoekin ikusi den *Burdinazko gurutzea —Cross of Iron—* (1977) lan (anti)belikoak baldintza onetan eginiko bultzada berri baten premia zuen.

Iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera, programazioak oso ohikoak ez diren baina geratzea merezi duen beste geltoki batzuk ditu. Kinuyo Tanaka zinemagile japoniarraren errebindikazioa gero eta zabalagoa da, eta haren lehen lana ikusiko dugu oraingoan: *Carta de amor —Koibumi— (1953)*. Filmak sentsibilitate bereziarekin kontatzen digu eskribau batek nola jartzen dituen bereak ez diren sentimenduak paper gainean beste batzuen ilusioa pizteko. *Las órdenes —Les ordres—* (1974) Cinémathèque Québécoise-tik iritsiko zaigu. Bertan, diplomatiko britainiar bat eta Quebeceko ministro bat bahitu ondoren 450 pertsona nola atxilotu eta ondoren kargurik gabe aske utzi zituzten kontatuko digu Michel Brault-ek Cannesen zuzendari onenaren saria irabazi zuen lan honetan. Ikuspegi politikoa osatzeko, Fernando E. Solanas zinemagilearen funtsezko tituluetako bat izango dugu: *Sur* (1988). Solanasek Argentinako 1983ko diktadura militarraren amaierako askatasun- eta itxaropen-nahiak birsortuko ditu filmean, eta berriz ere erakutsiko digu garai desberdinetako zinemak zerikusi zuzena izan dezakeela gaurko egoerarekin. Horixe da, hain zuzen, sekula aldatzen ez den bere beste bertuteetako bat.

Ricardo Aldarondo

# Nuevos continentes, más espacios para los clásicos

Cambian las formas, se amplían las posibilidades. Tras dos temporadas de la mano del Instituto Lumière, el ciclo que cada año la Filmoteca Vasca dedica a los clásicos se enriquece con más compañeros de viaje y con más citas a lo largo del año. Y conjuntamente con el Festival de San Sebastián.

*Klasikoak* es la nueva denominación que abarcará tres formas de fomento y pasión por el cine de todos los tiempos: el ciclo de una docena de títulos con la mayor diversidad de miradas sobre la historia del cine, que se verán de abril a junio en la programación de la Filmoteca Vasca; y las dos propuestas que se desarrollarán durante el Donostia Zinemaldia, una selección propia de restauraciones y recuperaciones relevantes de la temporada, y una amplia retrospectiva, que este año estará dedicada al cine policíaco italiano, con el título de *Italia violenta*. Tres continentes relacionados para abordar los clásicos a lo largo del año entre los dos organismos cinematográficos.

La primera cita comienza en abril y se desarrolla en cinco capitales vascas. A lo largo de tres meses se podrá ver una selección de doce títulos que ofrecen una panorámica de casi un siglo de cine a través de restauraciones realizadas recientemente en todo el mundo, filmes canónicos que siempre ganan nuevos públicos, rarezas que nunca debieron quedar olvidadas, hitos ocultos que merecen ocupar otro lugar en la historia del cine y filmes que no se habían vuelto a ver con este esplendor desde su lejano y a veces problemático estreno. Y con presentaciones en varias proyecciones a cargo de especialistas en el cine clásico o relacionados con las filmotecas e instituciones que hacen posible dar nueva vida, transmisión y reconocimiento a cada cinta.

El Instituto Lumière, que brindó en las dos ediciones previas su enorme bagaje en programación de clásicos, sigue formando parte de las fuentes para elaborar el nuevo ciclo, que ahora se amplían. Del instituto lionés llegará *Adiós, Querida -Adieu, Chérie-* (Raymond Bernard, 1946), que será precisamente la clausura del programa en junio, con una nueva restauración de esta película protagonizada por una ingeniosa Danielle Darrieux, que en plena posguerra protagoniza una chispeante comedia crítica con la hipocresía de la burguesía, a través de incisivos diálogos y una puesta en escena deslumbrante.

La programación se abrirá con un clásico entre los clásicos como es *Garai modernoak / Tiempos modernos -Modern Times-* (1936), de Charles Chaplin, que al igual que *El apartamento -The Apartment-* (1960), de Billy Wilder, representan la necesidad de volver una y otra vez a los hitos inagotables, ahora que hay oportunidad de presentar recientes restauraciones emprendidas por la Cinemateca de Bolonia y Park Cirkus, respectivamente. Y un pilar cinematográfico similar es *Esa pareja feliz* (1951), en la que dos nombres tan fundamentales del cine español como Juan Antonio Bardem y Luis García Berlanga debutaban al alimón con una seguridad pasmosa en una comedia deliciosa, ante todo lo que estaban a punto de inventar. Otro clásico incontestable, y cada vez más vivo, y de uno de los más grandes cineastas británicos, Michael Powell, es *Begiluzea -Peeping Tom-* (1960), con su sutil y magnético tratamiento del terror y su asombroso colorido siempre vivos.

En el otro extremo quedan películas que se perdieron injustamente en el tiempo por diversas circunstancias. Y que se hace urgente recuperar en una época en que hay que replantear logros y valores, como es el caso de la cineasta Martha Coolidge, que en 1976 ya denunciaba una violación que había sufrido a los 16 años en una fiesta, a través del impactante filme *Not a Pretty Picture*. Una verdad incómoda a la que hay que seguir haciendo frente. Este valiente y avanzado documental se constituye casi cincuenta años después en fundamental instrumento sobre las dinámicas de poder y abuso y la necesidad de verbalizar los traumas.

Los atrevimientos formales y los experimentos sin red que proliferaron en los años 60 en todas las cinematografías dieron lugar a rarezas no siempre comprendidas pero que merece la pena descubrir. Es el caso de *El desconocido de Shandigor -L'inconnu de Shandigor-* (1967), un filme con Serge Gainsbourg como “un malvado espía que controla a una banda de secuaces calvos”, en un “policíaco de rasgos autoparódicos y tono de tebeo filmado en un blanco y negro de tintes expresionistas por Jean-Louis Roy, uno de los pioneros de la *nouvelle vague* helvética”, según expresa Felipe Cabrerizo en su libro *Elefantes rosas*. Y con una Shangri-La con la que sueñan sus protagonistas, recreada curiosamente en el Parque Güell de Barcelona.

Algunos cineastas muy reconocidos por ciertas obras ven cómo otras de sus producciones quedan retenidas, olvidadas o simplemente invisibles. Es el caso de Claude Sautet, el director francés a quien el Festival dedicó una retrospectiva en 2022. Pero una de sus obras mayores, y la más *noir*, no se pudo ver entonces por problemas de derechos. Restaurada y relanzada por Cannes Classics el año pasado, *Arrisku-klase guztiak -Classe tous risques- (1960),* protagonizada por Lino Ventura, Sandra Milo y Jean-Paul Belmondo, revelará por fin toda su fuerza en poderoso blanco y negro. Y de Sam Peckinpah se celebran y se reivindican a menudo sus *westerns*, como esta temporada en Nosferatu, pero una excelente deriva (anti)bélica en su filmografía, como es Burdinazko gurutzea *-Cross of Iron-* (1977), protagonizada por un impactante James Coburn, que a menudo se ha visto en malas copias y con problemática distribución, necesitaba un relanzamiento en condiciones.

De norte a sur y de este a oeste, la programación tiene paradas en otros lugares nada comunes en los que conviene detenerse. La reivindicación de la cineasta japonesa Kinuyo Tanaka se va completando, ahora con su debut *Carta de amor -Koibumi- (1953)*, un filme de especial sensibilidad a la hora de contar los sentimientos ajenos que un escribano pone sobre papel para encender la ilusión de otros. Desde la Cinémathèque Québécoise llegará *Las órdenes -Les ordres-* (1974), un filme en el que Michel Brault documentó la detención de 450 personas y su posterior liberación sin ningún cargo, tras el secuestro de un diplomático británico y un ministro de Quebec, y que ganó el premio a la mejor dirección en Cannes. Y que se puede complementar en la perspectiva política con *Sur* (1988), uno de los títulos fundamentales del cineasta Fernando E. Solanas, que recreó las ansias de libertad y esperanza al término de la dictadura militar en Argentina en 1983, y que mostrará una vez más cómo el cine de diferentes épocas puede dialogar muy vivamente con la actualidad, otra de sus virtudes permanentes.

Ricardo Aldarondo






# GARAI MODERNOAK / TIEMPOS MODERNOS

## MODERN TIMES

| | | | |
|---|---|---|---|
| **2024/04/05** | **2024/04/09** | **2024/04/11** | **2024/04/13** |
| TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | GOLEM BAIONA ZINEMAK<br>**IRUÑEA-PAMPLONA** | ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | BIZKAIA ARETOA – UPV/EHU<br>**BILBAO** |
| **19:00** | **19:00** | **19:00** | **19:00** |

| |
|---|
| Charles Chaplin |
| 1936 |
| AEB / EE UU |
| United Artists |
| Charles Chaplin |
| Roland Totheroh, Ira Morgan |
| Charles Chaplin, Willard Nico |
| Charles Chaplin |
| Charles Chaplin, Paulette Godard, Henry Bergman, Tiny Sandford, Chester Conklin |
| 89’ |

**Metalurgiako langile bat erotu egingo da egiten duen lan mekanikoaren ondorioz. Osatzen denean, atxilotu egingo dute manifestazio batean —nahi gabe— parte hartzeagatik, eta kartzelan matxinada bat kontrolatzen lagunduko du, hori ere nahi gabe. Ondorioz, aske utziko dute. Azkenean, urrundu egingo da, kalean ezagutu duen umezurtz baten eskutik.**

**Chaplinen azken film mutua, haren lan onenetako bat, zaharberritu da. Bolognako Cinetecan zaharberritu dute, eta aipagarria da jatorrizko soinu-banda ere berreskuratu dutela; horri esker, Chaplin bikainak asmatu zuen bezala ikus dezakegu filma.**

Agobiado por su mecánico trabajo, un obrero metalúrgico se vuelve loco. Tras su recuperación es detenido por participar -involuntariamente- en una manifestación y, también involuntariamente, ayuda a controlar un motín en la cárcel, lo que le vale la libertad. Al final, termina alejándose de la mano de una huérfana que ha conocido en la calle.

Restauración de una de las obras cumbres del cine de Chaplin, su última película muda. Llevada a cabo en la Cineteca de Bolonia, es de señalar la recuperación de la banda sonora musical original, que permite ver la obra tal y como fue concebida por el genio inglés.

Intertituluak / Intertítulos
**Ingelesa / Inglés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Euskara, gaztelania / Euskera, castellano**

CINETECA BOLOGNA





# NOT A PRETTY PICTURE

| | | | |
|---|---|---|---|
| **2024/04/16** | **2024/04/18** | **2024/04/19** | **2024/04/20** |
| GOLEM BAIONA ZINEMAK<br>**IRUÑEA-PAMPLONA** | ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | BIZKAIA ARETOA – UPV/EHU<br>**BILBAO** |
| **19:00** | **19:00** | **19:00*** | **19:00*** |

| | |
|---|---|
| Martha Coolidge | |
| 1976 | |
| AEB / EE UU | |
| Coolidge Productions | |
| Martha Coolidge | |
| Don Lenzer, Fred Murphy | |
| Martha Coolidge, Suzanne Pettit | |
| Tom Griffith | |
| Reed Birney, Jim Carrington, John Fedinatz, Diana Gold, Stephen Laurier | |
| 83’ | |

**Dokumentalaren eta narrazioaren arteko eremu hibrido batean mugitzen da filma. Zuzendariak berak jasan zuen bortxaketa baten berreraikuntza autobiografikoa da. Bertan, kamerak galderak egiten ditu eta, besteak beste, egoerak, sentimenduak eta arrazoiak deskribatzen ditu.**

**Orain arte aurkitzen zaila izan den harribitxi hau Academy Film Archivek eta The Film Foundationek zaharberritu dute azkenik, 4K-n.**

Película que se mueve en un terreno híbrido entre lo documental y lo narrativo. Es la reconstrucción autobiográfica de una violación sufrida por la propia directora, en la que la cámara interroga y describe situaciones, sentimientos, razones…

Una joya difícil de encontrar hasta ahora y al fin restaurada en 4K por el Academy Film Archive y The Film Foundation.

Hizkuntza / Idioma
**Ingelesa / Inglés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**

*** Aurkezpena: Irati Crespo, Donostia Zinemaldiko *Artxiboa* proiektuaren arduraduna.**

* Presentación: Irati Crespo, responsable del proyecto *Artxiboa* del Festival de San Sebastián.






# LAS ÓRDENES
## LES ORDRES

| | | | |
|---|---|---|---|
| **2024/04/23** | **2024/04/25** | **2024/04/26** | **2024/04/27** |
| GOLEM BAIONA ZINEMAK **IRUÑEA-PAMPLONA** | ARTIUM MUSEOA **VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | BIZKAIA ARETOA – UPV/EHU **BILBAO** |
| **19:00** | **19:00** | **19:00** | **19:00** |

| | |
|---|---|
| Michel Brault |
| 1974 |
| Kanada / Canadá |
| CFDC, Les Productions Prisma |
| Michel Brault |
| Michel Brault, François Protat |
| Yves Dion |
| Hélène Loiselle, Jean Lapointe, Guy Provost, Claude Gauthier, Louise Forestier |
| 109’ |

**Bi politikari ospetsu bahitu ondoren, 1970eko urrian gerra-legea ezarri zen Kanadan. Lege horrek eragin zuen salbuespen-egoeraren ondorioz, 450 pertsona atxilotu eta espetxeratu zituzten, haien aurkako inolako kargurik gabe. “Aginduak” ziren.**

**Hamaika sari jaso dituen film honek 50 urte beteko ditu aurten. Beste sari batzuen artean, Cannesko zinema-jaialdiaren 1975eko edizioko zuzendari onenarena partekatu zuen Costa-Gavrasekin. Quebeceko zinematografiaren ezinbesteko izenburua da, eta haren bertsio zaharberritua Cinémathèque québécoiseren lankidetzari esker proiektatuko da.**

Tras el secuestro de dos personalidades políticas, en octubre de 1970 se implantó en Canadá la “Ley de Medidas de Guerra”. Consecuencia de la situación de excepcionalidad que provocó dicha ley, 450 personas fueron detenidas y mantenidas en prisión sin ningún cargo en su contra. Eran “órdenes”.

Esta multipremiada película, recientemente restaurada, cumple este año su 50 aniversario. Entre otros premios, compartió con Costa-Gavras el premio a la mejor dirección de la edición de 1975 del Festival de Cannes. Es un título imprescindible de la cinematografía de Quebec y su restauración será proyectada gracias a la colaboración con la Cinemateca Quebequense.

Hizkuntza / Idioma
**Frantsesa / Francés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**

cinéma
cinémathèque
thèque qc
qc






# EL DESCONOCIDO DE SHANDIGOR

## L'INCONNU DE SHANDIGOR

| | | | |
|---|---|---|---|
| **2024/04/30** | **2024/05/02** | **2024/05/03** | **2024/05/04** |
| GOLEM BAIONA ZINEMAK<br>**IRUÑEA-PAMPLONA** | ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | BIZKAIA ARETOA – UPV/EHU<br>**BILBAO** |
| **19:00** | **19:00** | **19:00*** | **19:00*** |

| | |
|---|---|
| Zuzendaria | Jean-Louis Roy |
| Urtea | 1967 |
| Herrialdea | Suitza / Suiza |
| Ekoizpena | Frajea Films |
| Gidoia | Jean-Louis Roy, Gabriel Arout, Pierre Koralnik |
| Argazkia | Roger Bimpage |
| Muntaia | Françoise Gentet |
| Musika | Alphonse Roy |
| Aktoreak | Marie-France Boyer, Ben Carruthers, Jacques Dufilho, Daniel Emilfork, Serge Gainsbourg |
| Iraupena | 90' |

**Zientzialari batek arma nuklearren ondorioak ezeztatzeko gai den metodo bat asmatuko du. Sekretua gorde nahian, babesleku batean bakartuko da alabarekin eta laguntzaile batekin. Hainbat herrialdetako zerbitzu sekretuak haren arrastoaren atzetik dabiltza ordea, halako arma baliotsua eraikitzeko formula eskuratu nahian.**

**Suitzako Zinematekak berriki egindako zaharberritze-lanari esker iritsi zaigun perla bitxi bat.**

Un científico inventa un método que es capaz de anular los efectos de las armas nucleares. Intentando preservar su secreto, se refugia en soledad con su hija y un asistente. Pero los servicios secretos de varios países están tras su pista, intentando hacerse con la fórmula que permita la construcción de tan valiosa arma.

Una perla rara que nos llega gracias a la restauración reciente a cargo de la Cinemateca Suiza.

Hizkuntza / Idioma
**Frantsesa / Francés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**

cinémathèque suisse

*** Aurkezpena: Frédéric Maire, Suitzako Zinematekaren zuzendaria.**
* Presentación: Frédéric Maire, director de la Cinemateca Suiza.






# ESA PAREJA FELIZ

| 2024/05/07 | 2024/05/09 | 2024/05/10 | 2024/05/11 |
|---|---|---|---|
| GOLEM BAIONA ZINEMAK<br>**IRUÑEA-PAMPLONA** | ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | BIZKAIA ARETOA – UPV/EHU<br>**BILBAO** |
| **19:00** | **19:00** | **19:00*** | **19:00*** |

- Juan A. Bardem, Luis G. Berlanga
- 1951
- Espainia / España
- Altamira
- Juan. A Bardem, Luis G. Berlanga
- Willy Goldberger
- Pepita Orduña
- Jesús García Leoz
- Fernando Fernán-Gómez, Elvira Quintillá, Félix Fernández, José Luis Ozores, Fernando Aguirre
- 90’

**Bikote ezkonberri xume batek xaboi-marka batek babestutako lehiaketa bat irabazi du. Ondorioz, “bikote zoriontsu” izendatuko dute, eta egun batez opariak eta gonbidapenak jasoko dituzte biek beste enpresa batzuen eskutik. Baina senarrak bi arazo konpondu behar ditu egun horretan bertan, huts egin gabe. Emazteak, baina, ez du haien berri.**

**Espainiako Filmategiaren laguntzari esker proiektatuko da bertsio zaharberritua.**

Una humilde pareja de recién casados gana un concurso patrocinado por una marca de jabón que supone su nombramiento como “la pareja feliz” y que consiste en que, durante un día, recibirán regalos e invitaciones por parte de otras empresas. Pero el marido debe resolver ese mismo día dos asuntos que no pueden esperar y cuya existencia la mujer desconoce.

Restauración proyectada gracias a la colaboración con la Filmoteca Española.

**Hizkuntza / Idioma**
**Gaztelania / Castellano**

FILMOTECA ESPAÑOLA

*** Aurkezpena: Valeria Camporesi, Espainiako Filmategiaren zuzendaria.**
* Presentación: Valeria Camporesi, directora de la Filmoteca Española.






# BEGILUZEA

## PEEPING TOM

| 2024/05/14 | 2024/05/16 | 2024/05/17 | 2024/05/18 |
|---|---|---|---|
| GOLEM BAIONA ZINEMAK<br>**IRUÑEA-PAMPLONA** | ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | BIZKAIA ARETOA – UPV/EHU<br>**BILBAO** |
| 19:00 | 19:00 | 19:00 | 19:00 |

| | |
|---|---|
| Zuzendaria | Michael Powell |
| Urtea | 1960 |
| Herrialdea | Erresuma Batua / Reino Unido |
| Ekoizpena | Amalgamated Productions, Michael Powell |
| Gidoia | Leo Marks |
| Argazkia | Otto Heller |
| Muntaketa | Noreen Ackland |
| Musika | Brian Easdale |
| Aktoreak | Karlheinz Böhm, Moira Shearer, Anna Massey, Maxine Audrey, Brenda Bruce |
| Iraupena | 109’ |

**Aitak haurtzaroan berarekin egin zituen esperimentuen ondorioz burua galduta, argazkilari batek bere biktimak erretratatzeko beharra sentitzen du haiek hiltzen ari den unean, laztura eta muturreko izua jaso nahi baititu irudietan.**

**The Film Foundationek eta BFI National Archivek zaharberritu dute. Hona filmari buruz Scorsesek esandako hitzak: ”itsugarriki ederra da; shock bat sistemarentzat, eta argi eta zuhur erakusten du artea egiteak dakarren arriskua”.**

Un fotógrafo profundamente desequilibrado debido a los experimentos que realizó con él su propio padre durante su infancia, siente la necesidad de retratar a sus víctimas mientras las está matando, intentando fotografiar el horror y el pánico extremo.

Restauración de The Film Foundation y el BFI National Archive. De ella Scorsese ha dicho que es “deslumbrantemente hermosa, un shock para el sistema y absolutamente lúcida sobre el peligro de hacer arte”.

Hizkuntza / Idioma
**Ingelesa / Inglés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Euskara / Euskera**

# IRUÑEA-PAMPLONA

## CINES GOLEM BAIONA

| | Eguna<br>Día | Ordua<br>Hora | Bertsioa<br>Versión | Azpitituluak<br>Subtítulos |
|---|---|---|---|---|
| **KLASIKOAK** | | | | |
| **GARAI MODERNOAK / TIEMPOS MODERNOS**<br>**-Modern times-**<br>Charles Chaplin, 1936 | **2024/04/09** | **19:00** | **Ingelesa**<br>Inglés | **Euskara, Gaztelania /**<br>Euskera, Castellano |
| **NOT A PRETTY PICTURE**<br>Martha Coolidge, 1976 | **2024/04/16** | **19:00** | **Ingelesa**<br>Inglés | **Gaztelania**<br>Castellano |
| **LAS ÓRDENES**<br>**-Les ordres-**<br>Michel Brault, 1974 | **2024/04/23** | **19:00** | **Frantsesa**<br>Francés | **Gaztelania**<br>Castellano |
| **EL DESCONOCIDO DE SHANDIGOR**<br>**-L'inconnu de Shandigor-**<br>Jean-Louis Roy, 1967 | **2024/04/30** | **19:00** | **Frantsesa**<br>Francés | **Gaztelania**<br>Castellano |
| **ESA PAREJA FELIZ**<br>Juan A. Bardem, Luis G. Berlanga, 1951 | **2024/05/07** | **19:00** | **Gaztelania**<br>Castellano | |
| **BEGILUZEA**<br>**-Peeping Tom-**<br>Michael Powell, 1960 | **2024/05/14** | **19:00** | **Ingelesa**<br>Inglés | **Euskara**<br>Euskera |
| **BURDINAZKO GURUTZEA**<br>**-Cross of Iron-**<br>Sam Peckinpah, 1977 | **2024/05/21** | **19:00** | **Ingelesa**<br>Inglés | **Euskara**<br>Euskera |
| **ARRISKU-KLASE GUZTIAK**<br>**-Classe tous risques-**<br>Claude Sautet, 1960 | **2024/05/28** | **19:00** | **Frantsesa**<br>Francés | **Euskara**<br>Euskera |
| **CARTA DE AMOR**<br>**-Koibumi-**<br>Kinuyo Tanaka, 1953 | **2024/06/04** | **19:00** | **Japoniarra**<br>Japonés | **Gaztelania**<br>Castellano |
| **EL APARTAMENTO**<br>**-The Apartment-**<br>Billy Wilder, 1960 | **2024/06/11** | **19:00** | **Ingelesa**<br>Inglés | **Gaztelania**<br>Castellano |
